

OIARTZUNGO Udal Osoko Batzarra

Adierazpen instituzionalaren proposamena

GRUPO OARSO TALDEA

Herriko eragile gisa eta #Erregularizazioa Orain mugimenduaren parte gisa, honako hau adierazten du:

- Azken zenbatespenen arabera, Espainiako estatuan administrazio-egoera irregularrean dauden 500.000 migratzaile inguru biziko lirateke, eta horietatik heren bat adingabeak izango lirateke.
- Atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei edo atzerritar horiek gizarteratzeari buruzko 4/2000 Lege Organikoan egoitza-baimena lortzeko aurreikusitako irizpideak oso murriztaileak dira.
- Murrizketa horrek zaugarritasun-egoera larriak eragiten dizkie hura pairatzen duten pertsoneri, eta horrek eragina du pertsona horien gizarte-bazterketan.
- Gizarte-bazterketa horrek eragina du hirian eta gizartean, oro har, eta ekarpen ekonomiko, fiskal eta jasangarri handia galtzen du funtsezko sektore produktiboetan, bereziki beharrezkoa gaur egungo krisi sozial eta ekonomikoaren testuinguruan.- ELGAREN ministro-bileran batean joan den udan Inklusio, Gizarte Segurantzza eta Migrazioetako ministro José Luis Escrivák adierazi zuenez, gertatzen ari dena, irregularitasun-aldi hain luzeekin, batzuetan zazpi edo zortzi urtera arte, ekonomia informal bat sortzen ari da, sektore askoren lan-baldintzen eta soldaten gainean beheranzko presioa egiten duena.
- 2022ko abuztuan, Estatuko Gobernuak Atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei edo atzerritar horiek gizarteratzeari buruzko 4/2000 Lege Organikoaren Erregelamenduaren erreforma bat onartu zuen, lan-baimenak emateko izapideak malgutzeko, ekonomiaren eta lanpostu duin eta kalitatezkoen hazkundean eragiteko helburuarekin, baina gaur egun Espainiako Estatuan administrazio-egoera irregularrean bizi diren 500.000 pertsonen egoera konpontzen ez dutenak.
- Ezohiko erregularizazioaren mekanismoa Europar Batasunean erabili denez, 1996-2008 aldian 43 aldiz 17 estatu kidetan, horietako sei Espainiako estatuan.
- Ezohiko erregularizazio berrienak Portugalen eta Italian egin dira 2020an, COVID-19aren pandemian, eta Nazio Batuetako migratzaileen Giza Eskubideen aldeko Errelatore Bereziak neurri hori babesten du.

Arrazoi horiengatik eta Udalak herrian bizi diren pertsonen justizia sozialarekiko duen konpromisoarekin bat etorritik, Adierazpen Instituzionalarentzat eduki hau proposatzen dugu:

LEHENENGOA. #Erregularizazioa Orain mugimendua babestea, Herri Ekimen Legegilerako (HEL) 700 mila sinadura baino gehiago biltzeagatik, Espainiako Estatuan migratzaileen ezohiko erregularizazioa dela eta; dagoeneko Kongresuan dago, Lan eta Gizarteratze Batzordean.

BIGARRENA. Diputatuen Kongresuan lege-proposamenaren hurrengo testu artikulatua aldatzeko eskatzea.

ATZERRITARRENTZAKO EZOHICO ERREGULARIZAZIOA EZARTZEN DUEN LEGEA

Artikulu bakarra: atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta atzerritar horiek gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren lehenengo xedapen iragankorra aldatzea.

Aldatu egiten da atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta atzerritar horiek gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren lehenengo xedapen iragankorra, eta honela idatzita geratzen da:

“Lehen xedapen iragankorra. Espainian dauden atzerritarren erregularizazioa. Gobernuak 6 hilabetetako prozedura ezarriko du Errege-Dekretu bidez, 2021eko azaroak 1a baino lehen espainiar lurraldean zeuden atzerritarren erregularizatzeko.”

HIRUGARRENA. Oiartzungo Udalak migratzaileen eskubide eta askatasunetikiko eta hiri eta gizarte bidezkoago, inklusiboago, anitzago eta demokratikoago baten aldeko borrokarekiko duen konpromisoa berrestea.

LAUGARRENA. Plenoaren erabakia #RegularizacionOrain (#RegularizaciónYa) mugimenduari, Diputatuen Kongresuari eta Estatuko Gobernuari helaraztea.

Grupo  Arso Taldea

